MALRAUX IDOLO ERORIA

MIKEL LASA

Denok gutxi-gora-bera izan ditugu mutil aroan gure begietako niniak bezain maite genituen idolo batzuk. Gero gizontzen ari geran bezela idolo oriek (sasi-jainkoak izan nunbait) lur jotzen dute, eta nor-bakoitzak, bear bada neurrizgain, agerrerazi nai duen itxura seriosak lotsa artzen du idolo orietaz itzegiera beartzen zaionean. Ni ere oroen legepetik pasia naiz. Eta zergatik ukatu?, nere mutil-aroko idolo bat, «L'Espoir», «Les Conquerants», eta «La Condition Humaine» exkribitu zituan gizona izan zan: André Malrauz. Zeiñek Malraux'ek bere nobeletan bezain obekiago zekian ematen edozein mutil gazteren baitan nahasten den errebeldia, ezin egona, esperantza argia, eta desesperantza illuna? Baietza guziak eta ezetza borobillenak gure baitan eramanik, alabaiñan ekintza bete batean biurtu eziñak baiziran (agian gure aultasunaren erruz, agian gure inguru dorpaerenaz), Mauraux'en nobeletako lagunetan

ikusten genituen nolabait kumplituak gure asmoak eta ametsak. Gaiñera Malraux'ek bazekian estilo nahastu eta trinko batean, gure sentiera adierazten.

Zenbait olako esaerak (erabatian edozer gauza eta deuz ez esan nai zutenetakoak) dabiltza galdurik gure gaztaroko Egueneko ikutuetan, Leturia batenean bezela.

Gero bere burua, bere nobeletan zalatzen zituen faxisten tartean ikusirik, sasi-jainkoa erori egin zan. Barregarri biurtu zaigu. De Gaulle zale amorratua dela ikusirik, oraingo Frantziaz Neokapitalista orretan, Lendakarien inguruan dabiltzanak marionetak iduri bazaizkigu, Malraux'ek berriz bufoi barregarri baten tankera artu bide du.

...Izan ere norbaiten burua zalatzaille billakatu denian, eta ortaz konturatu gabe lehengo estilo berean mintzatzen denian, zer esaten dabillen eztakiela, zer izanen da ezpada bufoi barregarri bat?

Txinara egin berri duan viajia ezin diteke komprenitu bestela. Eta viaje ortan zear egin dituan solasak ere ez. Zer adierazi izan nai die txinoeri bestela onoko itz auekin: «Egia da gure gizarte-bideak diferentiak direla, egia da ere zuek eta guk burruka bizian aritu gerala zapaltzera, armak eskuetan, etorri zaizkigun zapaltzaillearen kontra.

Frantziarentzat eta frantzezentzat leyenda bat zerate... C'est qui nous unit, c'est que vous avez fait la longue marche. Eta zuen guda ori etsemplu bat da gizadi osoarentzat». Lengo estilo berdiña baiñan funtsik gabeko itzak. Washington' en ez dira batere molestatu solas auek aditzean, konturatu baitira Malraux'ek literatura egiten jarraitzen duela.

Neure buruari galdezka nabil, Malraux'ek nolako buruaustea izan duen bere retorika igartuaz baliaturik, asierako reboluzio-zale zanaren paperak berritu, Mao Tse-Tung'en aurrean iru ordu luzean.

NAZIO ARTEKO UNEA

Erregea, erria ta demokrazia

Lengo illeko 20'an osatu zuen Tsirimokos'ek gobernua. Gobernua osatzea ez da ain zailla izan baiñan zaillagoa izango da parlamentuaren baimena eskuratzea. Izan ere azkeneko au jakitea ez da ain zailla Zentroko partiduko diputadu batzuek iritziz maizegi ta azkarregi aldatzen bai dute.

Era guztietara krisis au gelegi luzatu da ta Konstantino erregeak bere erriaren asarrea bereganatu du. Gaur egunean monarkiaren eta erregearen bearra zalantzan jartzen asiak bai dira. Parlamentu oni bukaera ematea ta elekzio berri batzuetarako erriari dei egiteak arriksu aundiegia dakarki erregearentzat, ori egitea monarkiaren alde edo kontra referendum bat egitea bai litzake. Konstantino erregeak gelegi arriskatzen du. Naiz eta krisis au konpondu, erriaren barruan bere indarra zearo gutxitua gelditu da ta Konstantino'k erriaren laguntza galtzen baldin badu monarkiak bere justifikazio guztia galduko du.

Aspaldiko theori zaharrak alde batera utzirik gaur egunean monarkiaren justifikaziora bi puntuetan neurtu lezakegu: monarkiaren afektibidadean eta erriak efektibidade ortan daukan siñismenean.

Lehenengoak bigarrena sortzen du eta erriaren laguntza sortu ezkero lehenengoa baiño traungorragoa izan diteke. Orregatik instituzioak sortu erazituzten bearrak ill arren instituzioak jarraitzen dute, inertzi bat ba dutelako.

Grezia'n bai al du monarkiak efektibidaderik? Grezia "koroatutako demokrazi" bat da eta naikoa izango da erregeak gaizki jokatzea "demokrazi" utsean gelditzeko.

Erregeak ez du beñere Grezia'ko ezkertiarren laguntzarik izan, ta orain erdiko askoena galdu du Erriak gertaera onen kontzienzia artu duenean erregea zearo zintzilika gelditu dela esan diteke. Erregea partidu politikoen gaindik bear luke, baiñan orain Papandreu jaunarekin asarre personala duelako politikaren saltsan sartu da.

Ta erregeak bere eginkizun ori galtzen baldin badu —partidue-tatik kanpo egotea— bere arrazoi guztiak galdu ditu. Ta erregeak erriaren begirune guztiak galtzen bal-din baditu politikalariak ez dute gelago erregea defenditu naiko.

Oraingo gertaerak bear bezela aztertzeko naikoa da diputaduak nola dabiltzan ikustea. Ministro izateak partiduaren batasunak baiño gelago bailo du, elekzio berriak izan ezkero galdu diteken diputadutzak garrantzi aundiagoa du demokraziak baiño. Orrela bakarrik irabazi lezake Tsirimokos'ek edo beste edozeiñek gobernuaren fraunpena. Grezia'ko politikalariei ezin ukatu liteke-kiena "Praktikaren zentzua" dan. Grezia'ko burrukaka eta proleмak XIX'gn gizaldikoak dirudite eta XX'gn. bizi gera.

Konserbadore politikalari batzuek, gobernua ta agintea bereganatu naiean, idealogiak alde batera utzi ta, Grezia'ko krisisa bakotzaren anbizioen proiema bat egin dute. Zer ikusirik bai al du erriak burruka onetan? Frantzes berrilari batek Papandreu'n itzaldi baten ondorenean erriak lehenagoko koruak bezela erantzuten zuela. Nik uste dut erria ez dela korua ,bakar bakarrik konparsaren papera eman diotela.

Iru dira Grezia'ko proiemak. Bata bere politikalariak pasatako gizaldian bizi direla. Bigarrena ez dela bear aiñeko indarrik duen ezkerrik (erriaren benetako proiemak konponduko dituen ezkerrik). Ta irugarrena gazteak burrukan ibiltzea poliziarekin. Ausardi ori beste zerbaiterako obea zen. Gobernua ta Konstituzioa erriari serbitzeko egiñak dira naiz ta zuzendari batzuek bestela pentsatu.

IÑAKI A. DORRONSORO

OSBORNE
Y Cía., S. A.
Coñac Veterano
Coñac Magno
Coñac zarrak eta onak

OIAL BIKAIN BERRI ERAKUSTEGIA
ALDAMAR
Zuzenbidea: Aldamar, 2
(Reina Regente ertzean)
Urrutizkiña 1-54-65
DONOSTIA

ZERUAN ZEAR

ESTADU BATUAK AURRERATZEN

RIKARDO ARREGI

Benetan miragarria dela ta txalogarria dela amerikanoak egitea lortu dutena. Ba zirudian astronautak zeruratu edo goi alderatu bezin laister esperientziak gaizki bukatuko zuela. Baiñan martxan barruan lortu dituzte aberi ta eragozpen guztiak zuzentzea. Bere zalapartak izan direla uste dut esperientzi orregatik astronautak gaxoturik bueltatuko ote ziren edo. Baiñan ez da orrela izan, zorionez.

Topiko bat dela ba dakit baiñan egia den ezkero esan bearrekoa, alegia amerikanoak bere esperientzi guztiak erriari begira, agiri agirian egiten dituztela. Orrek bere balioa ba duela ezin ukatu ditekena da. Besteak, rusoak gauzak egin-da gero agertzen dituzte. Ala ere aitortu bearra dago gaur egunean oso zailla dela edozein esperientzi, batez ere astronautikan ezer ez esan arren jendea ta batez ere jakintsuak jakin gabe gelditzea.

Ta orrek dakarkigu gertaera onen beste zer esan-nai bat. Orraintsu arte ea nor lehenago burruka gogorrean rusoak aurretik joan dira. Sputnik izan zen lehenengo satelite artifiziala. Rusoak izan ziren lehenengoz gizona espazioara bidali zutenak. Rusoak lehenengoz emakume bat bidali zutenak, bi gizon batera bidali zituztenak etab. Orain ordea ba dirudi amerikanoak zeukaten atzenapen ori laburtzen ari direla. Batez ere Kennedy'ren garaiean egin ziren aleginen ondorenak dira auek. Kennedy'k 1960'gn. lendakaritzarako izan ziren elekzioetan slogan bezela erabilli zituen gaiatatik bat espazioko laisterketan parte gogor artzea ta amerikanoak zeramakiten atzerapena laburtu bear zutela izan zen. Ta lendakari izatera iritxi bezin laister asi zen elekzio garaietan agindu zuena betetzen. Orregatik gaur egunean Estadu Batuetan espazioko tresna ta proba guztietako lekurik onenak eta famatuenak "Cap Kennedy" du izena. Bearrezko aitorketa.

Penagarriena laisterketa onetan gastatzen diren diruak ea nor geiago den demostratzen ibiltzea baiño denak elkarturik ez ikustea da. Baiñan ez gaitezen utopikoak izan eta aitortu dezagun zoritxarrez orrelakorik ez dela urte auetan gertatuko, naiz eta or egiten diren esperientzi guzti oiek gizon eta nazio guztien interesakoak direnak izan. Baiñan politikan eta militar gaietan bezela mundua bi zatian dago, obeto esateko, bi dira mundu guztian agintariik nagusienak eta oieri komeni ez baldin bazaie ez zaigu ezer iritxiko.

Era guztietara amerikanoak demostratu dute lanean jartzen diranean ba dakitela gauzak bear diren bezela egiten eta zituzten atzerapen guztiak kentzen. Gizon guzientzat berri ongarri ta dato interesgarri ugari ateratzen baldin badira esperientzi onetatik ba dugu alai izateko arrazoia amerikanoekin betera.